



Unai Diego  
lasarteoriatarrak  
5 urte darara  
Shangain

Orbea bizikleta enpresaren Shangai-ko fabrikari egiten du lan. Bere esanetan, "denbora asko behar da txinar hizkuntza ikasteko, unibertsitate joan beharko nuke idazten ondo ikastera". Kontu asko esan dizkiugu. /4-5 orrialdeak



Ama Brigitarren komentuko kapera jendez gainezka zegoen larunbatean. Hurbildutakoek ederki gozatu zuten kontzertuaz, eta merezitako txaloeekin eskertu zieten abeslariari.

## Kontzertu zirarragarria

Ekainaren 1ean, San Pedro jaien barruan, emanaldia eskainiko du Sagardotegi plazan

Alboka, Alboka-txiki eta Txepetxa abesbatzek ikasturte amaierako kontzertu ederra eskaini zuten larunbatean, Ama Brigitarren komentuko kapera. Bertara hurbildu ziren herri-tarrek ederki gozatu zuten hiru abesbatzen ahots eta euskal doinu, zein nazioarteko kantek entzun zituzten. •

## Kontzertu sakona eskaini zuen Jokin Goenagak

Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian, kontzertu berezia egon zen ostiral iluntzean, herriko Jokin Goenaga akordeoi joleak eskaini zuena.

XpressionK elkarteak Udalaren laguntzaz antolatzen dituen ostiraleko emanaldietan, akordeoiaren txanda izan zen.

Jokin Goenagak berak sortutako abestiak eskaini zituzten bertaratutakoekin, eta sentimendu handiz, barru barrutik aritu zen jotzen eta ederki gozatu zuten kafetegira hurbildu ziren herritarrek.



Barru-barrutik aritu zen jotzen Jokin Goenaga lasarteoriatarra akordeoia ostiralean kulturetxean.

KIROLA /2

Alberto Udabe  
garaile herriko  
Squash  
txapelketan

JAIK /3

San Joan sua  
Okendon piztuko  
da ostegunean

EKONOMIA /6

Usurbilgo  
Lanbide eskola  
Zubigune  
fundazioko kide

# MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Finala oso borrokatua eta bizia izan zen, tanto luzeak eta set batzuetan oso berdinduak ibili ziren Udabe eta Erkizia.

Iaz Erkiziak irabazi zuen finala, aurtan berriz, gustura hartu zuen saria Udabek.

## Udaberentzat squasheko txapela

Alberto Udabe usurbildarrak eta Agustin Erkizia oriotarrak larunbatean hirugarren finala jarraian jokatu zuten aurrez-aurre kiroldegian. Iaz Erkiziak irabazi bazuen ere, aurtengoan txapela Udabek eraman du.

Larunbat arratsaldean jokatu zen kiroldegian herriko XXIII. Squasheko Txapelketa sozialaren finala. Berrito ere, azken bi urteetan bezala, bikote berberak zuen jokoan txapela, Agustin Erkizia oriotarrak eta Alberto Udabe usurbildarrak.

Finala oso borrokatua eta bizia izan zen, azkenean bost set-ak jokatu behar izan zituzten. Lehenengoa 13-15 irabazi zuen Erkiziak, bigarrena 15-12 Udabek, hirugarrena ere Erkiziak 15-6 eta laugarrena 15-7 Udabek eraman zuen.

Azkeneko set-a berriz, Erkiziaren alde zihoan, baina azken momentuan Udabek buelta eman zion partidari eta finala irabazi zuen 3-2ko emaitzarekin.

Oso gogor eta bizi aritu ziren final osoan zehar, pilota ere aldatu behar izan zuten azkenean lehertu egin zelako.

### Beste finalak

Larunbatean bertan, final nagusiaz gain, beste bi final ere jokatu ziren, kontsolazio-koa eta hirugarren eta laugarren postuak.

Kontsolazioko partida ere nahiko luze jo zuen, ordubate inguru egon ziren Mitxel Zugastik eta Xabier Linazisoro. Hauek ere bost set-ak jokatu behar izan zituzten. Mitxel Zugastik irabazi zuen 3-2ko emaitzarekin.

Hirugarren postua berriz, Oswal Cañedorentzat izan zen, baina partida hau ez zen jokatu, Kinin Calvo ez baitzen azaldu. Hala ere, renuntzia ez zuenez egin, Kinin bera geratu zen laugarren postuan.

Finalek amaieran, Pablo Barrio alkateak eta Alaitz Mendizabal zinegotziak eman zizkieten sariak aipatutako finalak jokatu zuten partaide guztiei. •



Kontsolazioko finala, 3. eta 4. postua eta finala jokatu zuten partaideek Udal agintariekin eta kiroldegiko arduradunarekin.

### Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Oroitzapen txarrak erretzeko aukera izango dute herritarrek ostegunean Okendo plazan egingo den San Joan suan.

## Ostegunean, Okendon piztuko da San Joan sua

Ostegunean urteko gaurik motzena izango dugu, San Joan berperako gaua hain zuzen ere

**G**au magikoa omen da, oroitzapen txarrak erre eta horiek ahazteko gaua. Eta horretarako, Euskal Herriko bazter guztietan San Joan Sua pizten da.

Gure herrian ohitura den legez, hainbat ekitaldi burutuko dira ospatzeko.

### Dantza eta kalejira

Lehenik, eguraldiak laguntzen badu, 21:30ean, Udaletxe aurrean Zortzikoa dantzatuko

dute Erketz DTko lagunak.

Ostean, Udal zinegotzi eta dantzariak Okendo plazara kalejiran egingo dute haiekin biltzen diren herritarrekin batera. Festa programazioan Andatza plazan izango dela agertzen bada ere, gogoratu azkenean Okendo plazan piztuko dela San Joan Sua. Orotuegiak mantentzen dira.

### Sokadantza eta sua

Ohikoa denez, Okendo pla-

zan sua piztu baino lehen, Erketzeko dantzariak sokadantza eskainiko dute eta jarraian, fandango eta arinarina dantzatzera gonbidatuko dituzte bertan bildutako herritarrek.

Ostean, sua piztuko dute eta kalejira egingo da.

Suaren garretan erreko dituzte herritarrek urte honetako gauza txarrak, ea bide batez ahaztu ditzaketen gau berezi honi esker. •

### SAN PEDROAK 2011

## Zikero afariko txartelak gaur bertan jarriko dira salgai

Urtero legez, Ttakun Kultur Elkarteak San Pedro jaietako lehenengo egunerako, ekainaren 29rako, zikero afaria antolatu du.

Afaria Sorgin Jaien gunean izango da iluntzeko 21:00etan. Txartelak astelehenean, ekainaren 20an, jarriko dira salgai Ttakunen eta Jalgin 20 euroren truke. •

### KONTZERTUA

## Hilotz taldearekin Zaragozara

Ekainaren 25ean, larunbatean, Lasarte-Oriako Hilotz taldeak Zaragozan kontzertua eskainiko du.

Zaragozara lagundu nahi dieten guztiak aukera izango dute, egunean bertan Donostiatik autobus bat aterako da goizeko 09:00ak aldera.

Interesa duenak 637 250373 telefono zenbakira deitu dezala eta Mikeletaz galdetu. Autobuserako txartela 30 euroko prezioa izango du. Hilotz taldeetik jendea animatu eta eurekin Zaragozara joateko gonbitea luzatu nahi deitu. •



Hilotzek Abend-en IX.Multimusikalaren barruan eman zuten kontzertuan.

### SAN PEDROAK 2011

## Bertso saiorako txartelak

Urtero legez, Ttakun kultur elkarteak Udalaren laguntzaz San Pedro jaietako bertso saioa antolatzen du.

Aurten Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Patxi Etxeberria, Jon Maia, Ane Labaka eta Unai Muñoa bertsolariak izango dira San Pedro egunean, ekainaren 29an, 22:30etik aurrera haien kantuekin jendea gozaraziko dutenak.

Txartelak hurrengo astean, ekainaren 27an, jarriko dira salgai Manuel Lekuona kultur etxean. Sarrerak 5 euro balio ditu. •

## Musika Eskolak agur esango dio ikasturteari

**I**kasturtea amaitzear dagoela, Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako ikasleek bihar, ekainaren 21ean eta etzi, ekainaren 22rako kontzertuak prestatu dituzte. Bi kontzertuak arratsaldeko 19:00etan izango dira kultur etxean.

Biharko kontzertuan, Musika Eskolako ikasleek gain iriaki Landa dantza irakaslearen ikasleek ere hartuko dute parte.

Bertan, tronpetak, trikitiak, bibolinak, txistuak, gitarra eta flautak prestatutako kantak eskainiko dizkigute.

Emanaldiari amaiera emateko taldean prestatutako Pot-pourria ere entzun ahal izango da.

### Diplomak eta pianojoleak

Etziko kontzertuan aldiz, ikas-



Pasa den urtean Musika Eskolako ikasleek eskainitako kontzertua.

turte honetan maila gainditu duten ikasleei dagokien Diploma banatuko zaie eta ondoren, eskolako talde desberdinen eta pianojoleen txanda iritsiko da.

Bi kontzertu hauekin,

2010-2011 ikasturteari amaiera emango diote Lasarte-Oriako Udal Musika eskolatik. Herritar guztiei bi zitara gonbidatu nahi dituzte Musika Eskolatik. Gogoratu, bihar eta etzi 19:00etan. •



## Euskal Asteari hasiera eman dio Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak

**L**arunbatean ikasturte amaierako jaialdia izan zuten Sasoetako eraikinean eta gaurtik ostegunera arte, Euskal Astea ospatuko dute azken urteetan bezala.

Jaialdian jolasak, dantzak *Kanpanolue Martxan* ikuskizuna, puzgarriak, karaokea, hamaiketakoa... denetarik izan zuten eta gaurtik aurrera

gehiago izango dute.

Hainbat txango egingo dituzte hiru egun hauetan: Tren txikiko ibilbidea, Sta Barbara, mini golfera, Gamarrara... Bertsolariak landuko dute eta ipuin kontalariak ere izango dituzte.

Modu bikaina beraz ikasturtea amaitzeko, ederki gozatu dute haur eta gurasoek. •

Unai Diego Amundarain Orbea bizikleta enpresaren Shangai-ko fabrikako langilea

# “Denbora asko behar da txinar hizkuntza ikasteko”

■ Lan kontuak direla eta ez du nahi beste denborarik ■ Unibertsitatera joan beharko luke idazten ondo ikasteko ■ Amerikan, Afrikan eta Asiako toki askotan saltzeko kirol bizikletak montatzen ari da Shangai Orbeak duen enpresan

Unai Diego lasarteoriarrak bost urte daramatza Shangai lanean. Enpresaritzatik ondorengo masterra Pau Frantziako hirian egin eta masterraren amaierako tesia egitera joan zen Txinara bi hilabeterako. "Shangai egon nintzen, eta han bizitakoa gustatu zitzaizkidan, etorri bezain pronto hara lanera joateko aukeraren bat bilatzen hasi nintzen. Galdetzen eta curriculumak bidaltzen ibili nintzen, eta azkenean Orbeak hartu ninduen hara joateko". Bost urte hauetan hainbat aldaketa bizi eta ezagutu ditu Txinan, oraingoz gustura dago munduaren beste aldean. Dena den, hona etortzen denean konturatzen da zein alde handia dagoen bien artean.

Jon ALTUNA

**O**rbeak Txinan saltzeko egiten al ditu bizikletak Shangain? Ala mundu osoan saltzeko egiten dituzue?

Esportatzeko dira, baina Euro-patik kanpo, Europak Txinatik datozten bizikletentzat arantzela daukalako. Europan saltzeko bizikletak Bizkaian Mallabian daukan enpresan egiten ditu Orbeak eta Txinako fabrikari egindakoak Ameriketara, Australiar eta Asiako hainbat tokitan, Korean, Japonen, Taiwanen, Filipinetan, Thailandian... saltzen ditugu. Orain arte kanpora saltzeko egiten ziren baina aurten Txinan bertan saltzen hasi gara.

**Enpresa handia al da? Zenbat bizikleta egiten dira?**

Ez da oso handia. Enpresa zabaltzera joan nintzenean hamar pertsona hasi ginene lanean eta orain 50 lagun inguru gara. Urtean ez ditugu 15.000 bizikleta baino gehiago muntatzen.

**Garai batean oso lotuak ziren Txina eta txirindua, eta gaur egun? Berdin jarraitzen al du?**

Bai, berdin jarraitzen du. Han geroz eta diru gehiago dago, maila ekonomikoak igotzen ari dela nabaritzen da eta azkenean, lehen bizikleta zeukanak, hurrengo pausua, moto elektrikoak erostea du, gero motorra hartzen du, eta azkenik autoa. Baina oraindik jende asko ikusten da bizikletan.

**XIX-XX. mendeko etxeekin batera eraikin modernoak daude Shangain eta munduko hiri aurreratuak ez dauka alde handirik**

**Korrika egin duzue aurten... Gauza asko antolatzen dira Euskal Etxean, astebururo badago zerbaite, txapelketak, bazkariak, danborrada,...**

**Herrimin handia sentitzen al duzue? Nik suete pixka bat badaukatzeko urtean bizpahiru aldiz etortzen naiz hona, gutxienez bi aldiz bai eta beste behin lan kontuak direla eta. Han zaude-la ez duzu ikusten eta ez zara ohartzen, baina etorritakoan gogoratzen zara zer nolako aldaketa den.**

**Zenbat denborarako etorri zara oraingora? Bai atsetarako. Aste bete lanean eman dut eta beste aste bat oporretan.**

**Zenbat denborako bidaia da munduaren beste aldera? Shangai nire etxetik maletekin ater eta Lasartera gurasoan etxera iristen, guztira 24 ordu dira. Etxetik aireportura bi ordu, han bi ordu itxaron, hegazkina hartu eta 11 ordu Parisera, Parisen beste hiruzpalau ordu itxaron, ... azkenean ordu pila bat dira.**

**Esperientzia ona izan al dira bost urte hauek Shangain? Gustura al zaude? Bai, esperientzia aldetik oso ona izan da, oso gustura nago.**

**Bertan segitzeko asmorik ba al duzu? Bost urte ondoren agian pisutsuagoa egiten da. Azkenean gauza asko ditut egiteko, gaztea naiz,...**

**Bost urtetan bilakaera, aldaketarik sumatzen al duzu txinatarrengan? Bai, hemen ere entzuten da hori, ezta? han, gauzak oso azkar doazela. Azkenean Txinako aldaketen arrazoi nagusia ekonomia da, 1990 hamarkadan eta 2000 urte hasieran enpresa asko joan ziren Txinara: dirua, teknologia, ... eraman zituzten eta garai horretan ezarpen edo kokapen garaia izan zen. Gero, bi mila urteko aurrera garapena etorri da, ondorioz, gure batzuen garapen azkarrak eta horrekin batera soldata mailak gogotzea, langileen baldintzak hobetzea, opor gehiago izatea, ... Guzti horrek aldaketa handia ekarri du.**

**Herri aurreratuaren artean, lehen munduan, sartzeko bidean jarri al da Txina? Bai. Dena den, Shangai kontraste handia dauka, batetik ikusi ditzakezu kaleak XIX-XX mendeetako etxeak, baina baita etxe orratz modernoak, eta New York edota munduko beste hiri aurreratuak ez dauka alde handirik.**

**Abangoardia ba al da Txina? Gauza batzuetan bai. Eta gero eta gehiago.**

**Zer moduzkoa da Shangai? Eta Txina? Jende asko dago, gehiegi, hiri guneean eta hirien erdian, kutsadura asko eta trafiko handia izaten da, kaosa, baina Txina oso handia da, geografikoki paisaia diferent**

asko daude, eta probintzia askotan ez da hainbeste jende bizi, ez daude hain garatuak.

Ekialdeko kosta da ekonomikoki aurreratua dagoena, eta biztanle gehiena dituen. Hiri handiak bertan daude. Beti izan da kosta hau aurreratuena, baina Txinako erdiguenea ere aurrera doa, zabaltzen ari da, gobernua bultzatzen duelako eta hasi dira enpresak irekitzen edota hara eramaten.

**Txinan leku asko ezagutu al dituzu? Bai, bost urtean asko. Zubi txiki bat edo opor batzuek izanda eta Txinan mugitzea ere ez denez hain garestia, ... aprobetxatu dit. Jende asko mugitzen da, garai batzuetan, toki batzuetan ez da hain erraza, baina tira, ...**

**Leku gomendagarri asko egongo dira, esango al diguzu bat? Niri Junan ingurua asko gustatu zitzaizkidan, Aitzol, Asier eta Anderrekin ikusi genuena. Duela bi urte bisitatu genuen inguruan, badira asko gustatzen zaizkidan bi hiri, Dali eta Lijiang.**

Hortik gertu dago, Tigrearen Jauzia izeneko zintzur edo arroila, nahiko ezaguna eta oso leku gomendagarria. Eta gertu, Guilin eta Yangshou inguruetako mendi berezi horiek, sorginduak edo ipuinetakoak diruditenak.

Ondo dago Txinako Mongolia ere, Txinako mugen barruan dagoen Mongoliako parte. Duela lau urte egon nintzen han, guztiarekin harrituta, desertu moduko bat da baina zelai ikaragarriekin, ...

**Nolakoak dira txinatarren? Sinpatikoak dira, eta beraien artean oso irekiak. Kanpokoekin itxiak izan daitezke, baina sagaituen hasten dira gauzak galdetzen edo laguntza behar baduzu laguntzen.**

**Txinera ikasten ari zara? Joan baino lehen hasi nintzen ikasten duela bost urte. Beti izan dut ikasteko gogo. Gauza da Txinera ikasteko denbora asko behar duzula eta lan egiten egonda, azkenean motibazio hori galdu egiten da, denbora falta, ...**



Junan inguruan, Guilin eta Yangshouko mendi ikusgarriak dira Txinan ikusi duen toki gomendagarrietako batzuek. Txinako mugen barruan dagoen Mongoliako parte ere ederra dela dio.



Junan eta Tibet aldeko mendietan bizikleta zeharkaldia egin zuten Unai Diegok duela bi urte hemengo hiru lagunekin batera.

## Tibet aldean bizikleta zeharkaldia

2009ko udan, Aitzol Etxe-goiari, Asier Martiarena eta Ander Amundarainen bisita jaso zuten Unai Diegok eta lauek bizikletaz zeharkatu zuten Tibet inguru Txinako zati menditsua. Sichuanetik abiatuta Junan-eko mendietan barrena ibili ziren.

Unai Diegok antolatu zien lagunei bidaia, berak bertan zizkien oporretan behar zituzten bizikletak eta txinatarrekin komunikatzeko Unai Diegok aurreko hiru urtetan ikasitako mandarin apurarenik moldatu ziren.

Treanean joan ziren, 40 orduko bidaia egin zuten trenez Tibet aldera, eta beste 23koa Hong Kong-erara. Tren nahiko azkarrak dauzkate, 150 kilometro orduko abiadura hartzen dutenak. Autobusa ere hartu zuten eta 25 ordu egon ziren errepidean, hauen ez zeudelako asfaltatuak eta lur-jauziekin arazoak izan zituztelako.

Bidaiaren zati handi bat Tibeteko lautadan egin zuten, lau mila metroatik gora.

Himalaiako mendi lurruak ikusiko zituztela uste bazuten ere, euri sasoiaren zenez ez zuten mendikatea ikusterik izan. Interneteko argazkietan ageri dira mendiok urrutira. •

**Hirian jende gehiegi, kutsadura asko eta trafiko handia da, baina Txina zabala da, geografikoki paisaia desberdin asko ditu**

**Zenbat denbora eskaini beharko zenioke ikasteko? Txinera ondo ikasteko unibertsitatera joan behar da, azken finean txineraren zailtasun handiena idazkera ikastea da.**

**Hitz egiten al duzu txineraz? Bai, oinarriko elkarrizketak behintzat bai.**

**Ingelesa hitz egiten al dute? Shangain gero eta gehiago.**

**Jatekoa, zer moduzkoa da? Oso ona, tradizionalki janariaren inguruko kultura oso zabala izan dute, eta egoia esan ondo dago, gauza batzuek asko gustatzen zaizkit, beste batzuek ez, ... baina hemen jateke txina-**

tarretan jaten diren gauza askok ez dute zerikusirik Txinan jaten direnekin. Ez dute ogirik jaten, arroz zuria jaten dute.

**Martin Berasategi ere zabaldu zuen jateke Shangain, ... Bai duela bi urte jarri zuten eta bi aldiz egon naiz, han, ireki aurretik 15-20 euskaldun izan ginen, eta ondoren beste behin ere bai. Hemengoak baino merkeagoa da, Lasartera-Orian ez naiz inoiz egon.**

**Garestia al da bertakoentzat? Bai, garesti xamarra. •**

# Enpresen etorkizuna ikerketan dago

Usurbilgo Lanbide Eskola sortu berri den Zubigune fundazioko partaideetako bat da

Asteazkenean, Usurbilgo Lanbide Eskolan Zubigune fundazioaren aurkezpena egin zen.

Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaria den Patxi Vaquerizok, Juan Jose Goñik Tecnaliako pertsonen garapeneko arduradunak eta Iñaki Mujika Lanbide hezkuntza eta hezkuntza iraunkorreko kontseilariorde ohiak fundazio berriaren nondik norakoak azaldu zituzten.

## Zubigune fundazioa

Fundazio hau, Usurbilgo Lanbide Eskolaz gain, Tecnalia eta Gipuzkoako hogeitabat enpresa eta erakundeek osatzen dute, hala nola, Adeg, Kutxa fundazioa, Luzuriaga edo Fagor Confort.

Fundazioak lanbide hezkuntza eta hezkuntza iraunkorreko elektrizitate, elektronik, mantenu eta ekoizpenerako, fabrikazio mekanikorako eta administrazioarako zerbitzuak piztu eta garatzea du azken xedea.

Honela, azken asmoa, ikerketa egituratu eta enpresa txiki eta ertainetan ezartzea da.

Patxi Vaquerizok azaldu zuenez, "honekin nahi zahar bat egi bihurtu dugu, ikerketan oinarrituko den erakundea sortzea".

Prentsaurrekoan azaldu zutenaz, Zubigune erakunde pribatua da, baina irabazi-asmorik gabekoa eta honetan parte hartu nahi duen enpresa edo erakundeetara irekia dago.

## Enpresetan lan egin

Mujika kontseilariorde ohiak azpimarratu zuenez, "enpresak ezin dira ikerketa zentrotan ematen diren aurrerapen teknologikoetaz baliatu. Eta horretan lan egin behar dugula uste dugu, enpresa txiki eta ertainetan hezkuntza, sensibilizazioa eta proiektuen sustapena bultzatuz".

Era berean, Juan Goñi Tecnaliako pertsonen garapeneko arduraduna ezagueraren



Zubigune fundazioa sortu duten enpresa, erakunde eta Usurbilgo Lanbide Eskola ordezkariak aurkezpen ekitaldian. Arg.: T.Valles

garantziak mintzo zen, "hau baita ongizatean bizi nahi duen gizartearen iraupenaren gakoa".

Irakasle eta heziketa-zentrotan arteko lotura handiagoa izan behar duela aipatu zuen

Goñik. Horretarako, zenbait urtetan egonaldi bat egin eta ikerketa proiektuak gauzatzea proposatu zuen. Gainera, hau Lanbide eskola eta enpresetan ere egin daitekeela azpimarratu zuen.

Honetaz gain, berrikuntza egon dadin erakunde, enpresa eta hezkuntza zentro desberdinen topalekuak sortzea proposatu zuen, "nodo mamitsuak, non osagai berriak sortzen diren". •

## XXII. Igeriketa Lasarte Saria jokatu zen larunbat goizean

Lasarte-Oriako kiroldegiko igerilekuan Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldeak antolatuta XXII. Lasarte Saria jokatu zen larunbata goizean.


Honetan, Buruntzaldea taldeko kideek Hernani KE eta Nafarroako Lagunak-Barañain taldeko igerilariak izan zituzten aurrez aurre proba desberdinetan.

Aipatzekoa da lehiaketa honetan Buruntzaldea IKT-ko herriko igerilarak ondo ibili

zirela, beraien kategorian lehenengo postua lortu zuten honakoek: Haitz Mitxelenak, Mikel Arribillagak, Ainara Garcia, Naroa Goikoetxeak, Iñigo Ibarburuk eta Mikel Esnalek.

Taldeka ere, lehenengo postua lortu zuten 10x50 estilo libre mistoan.

Jarraian, hiru taldeak giro onean Aginaga Sagardotegian bildu ziren indarra berreskuratzeke. Bazkalondoan, sari banaketa egin zen. •



Erakustaldi polita eskaini zuten igande goizean kirolariek. Elementu ezberdinekin egindako lanak ikusi ziren, bakarka zein taldeka.

## Gimnasia erritmiko taldearen erakustaldi polita igandean

Kurtsoari amaiera emateko LOKEko gimnasia erritmikoko atalak erakustaldia izan zuen atzo kiroldegian.

Bertan, 2010-2011n taldean egon diren maila desberdinetako gimnastak hartu zuten parte.

Ikuskizun ederra eskaini zioten bertaratu zen publiko zabalari.

### Erakustaldi ederra

Hasieran denak batera aritu ziren ariketak egiten, aurkezpen gisa. Ondoren, taldeka hasi ziren esku libreekin zein elementuekin eta gero bakar-ka ere aritu ziren. Zinta, soka, baloiak, mazak zein uztaiekin eginiko lanak ikusi ziren.

### Arroyok bi domin

Ekainaren 11n Durangon

ospatuta zen Euskal Ligako jardunaldian emaitza onak eskuratu zituzten LOKEko gimnasia erritmikoko neskek.

Aipatzekoa da Aizpea Arroyok eskuratu zituen bi dominak.

Lasarte-Oriako gazteak bigarren postua eskuratu zuten uztai lanean eta era berean, hirugarren geratu zen sokarekin egin zuten lanari esker. •



Jende ugari hurbildu zen larunbata goizean igerilekura txapelketa ikustera.

## Egunero

### Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN, Vanessa Gimeno diseinatutako kamisetak ikusi eta erosi egin daitezke. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan.



## Astelehena, 20

### Txapelketa

KARTETAKO TXAPELKETA egingo dute, Seiko Urreko partidak jokatuko dira. Biyak Bat Jubilatuen Elkartearen, 16:00etatik aurrera.

## Asteartea, 21

### Txapelketa

PARTIXEKO TXAPELKETA jokatuko da. Biyak Bat Jubilatuen Elkartearen, 16:00etatik aurrera.

## Asteazkena, 22

### Txapelketa

DOMINO TXAPELKETA jokatuko da. Biyak Bat Jubilatuen Elkartearen, 16:00etatik aurrera.



## Festa igerilekuan

URETAKO FESTA, San Pedro jaien egitarauaren barrua, 5etik 12ra urteko neska-mutilentzat.

OSTEGUNEAN, HILAREN 23AN  
GOIZKO 10:00ETATIK AUERRERA  
KIROLDEGIAN

### Kontzertua

MUSIKA-ESKOLAKO ikasleen kontzertua. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Biyak Bat erretiratuen elkarte-ko kideek. Kiroldagian, 10:00etatik aurrera.

### Erakustaldia

BATUKA ETA AEROBIKEKO erakustaldia egingo dute Emakumeen Zentro Zibikoko hainbat kideek. Kiroldagian, 12:00etan.

## Osteguna, 23

### Erakustaldia

AEROBIKEKO ETA GIMNASTIKAKO erakustaldia egingo dute

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## Esazu irrati programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

## Oharrak

### Odol aterateak

Hilabete honetan odol aterateak ekainaren 23an, ostegunean egingo dira Osasun Zentroan, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago eta!

### Etzeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, ekainaren 24an Lasarte-Oriako Etxerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

### Sorgin dantzako entsaioak

San Pedro egunean Oriako Sorgin Dantzan atera nahi dutenek bihartik aurrera, entsaioak dituzte, Landaberri BHiko patioan astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita.

Era berean, gogorarazten da, haurren zortzikotean joan nahi duten urteetan 1997, 1998 eta 1999. jaietako gaztetxoek kultur etxeko Gazte informazioaren izena eman behar dutela.

### Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da ekainaren 24an, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa-ekin, lau bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren eskumuturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata

zorroarekin, bi telefono mugikorrek bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarririkato batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

### Jokoak

MUGIMENDUZKO JOKOAK, toka, igela eta potoa. Isla Plazan, 16:00etan.

### Dantza

SAN JOANETAKO ZORTZIKOA dantzatuko dute Udaletxe parean Erketz EDTko dantzariak. Ondoren Udalbatzarekin batera Okendo plazara joango dira eta bertan Soka-Dantza tradizionala dantzatu eta gero SUA piztuko dute. Oken-do plazan, 21:30ean.

## Ostirala, 24

### Txapelketa

LASARTE-ORIAKO KUADRILLEN ARTEKO FUTBOL TXAPELKETAren finalak jokatuko dira. Michelingo Udal Kiroldegian, 16:00etatik aurrera.

## Osteguna, 30

### Kontzertua

AUPA QUARTET, soka laukotearen emanaldia. Jalgi kafe-antzekian, 23:00etan, EUSKARAZ.



## Eskutitza

### San Pedrotako Danborrada eta Buruntz-Azpi Elkartearen eskaera

Ohartarazi nahi dugu, elkarte honetako berrogeita hamargarren urteurrena dela eta, San Pedro jaietako danborradako batzordeari aurtengo danborrada Basaundi Bailarako plazatik atera dadila eskatu diogula. Hainbat eskutitz eta azken bilera baten ondoren, erantzun digute, ez daudela prest gure eskaera onartzeko ondorengo arrazoientatik:

- Beste eskaera batzuen aurrean irizpideak aldatu ez izana
- Afaltzen duten lekutik urrun geratzen zaiela.
- San Pedro jaietako danborrada "herrian" dela.

Hain argudio pobreen aurrean, eta kontutan izanik urte askotan zehar danborrada honen laguntzaileak izan gairela, iritziz publikoari gure desdostasuna adierazi nahi diogu; eta gaur da eguna, gastronomia elkarte bezala, danborrada batzordeak erabili egin gaituela sentitzen duguna.

Era berean adiera nahi dugu, guretzat, Basaundi Bailara ere Lasarte-Oria herriaren parte dela eta uste dugula, elkartearen berrogeita hamargarren urteurrena aukera ona dela auzo guztiak San Pedro jaietako danborradaz goza dezan.

Beraz, elkarte bakoitzak erabakiko du hartu beharreko jarrera, baina guk, Buruntz-Azpi elkarte bezala, urteroko asanbladan, bazkideei danborrada horretan parte hartzen ez jarraitzeko eskatuko diegu.

Bide batez jakinarazi, danborradan parte hartzen duten beste elkarte gastronomietako zuzendaritzari helarazi diegula gutun hau, gure iritzia jakin dezaten.

**Buruntz-Azpi Elkarte  
Zuzendaritza**

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Sorgin Dantzak botako du txupina

- "Sorgin jaiak" ostiralean aurkeztu zuen "goiz goizetik goizaldera arteko" egitarau zabala
- Antzerki eta dantza, bakailao lehiaketa eta eskalada txapelketa dira berrikuntza batzuek
- Herriko frontoi berria aurten zabalik egongo da eta zaintzeko eskatu dute antolatzaileek

Sorgin Jai alternatiboak antolatzen dituzten herri-tarrek ostiral arratsaldean aurkeztu zuten Okendon aurtengo egitarau zabala. Alde batetik jaiari hasiera emango dien txupina Sorgin Dantzako kideek botako dutela jakinarazi zuten, eta bestetik egitarauan aurten izango diren berrikuntzen berri eman zuten, besteak beste antzerki eta dantza emaldiak, kamioi rocka, eskalada eta bakailao txapelketak, koadrilen arteko bazkari autogestionatua eta jai alternatiboak antolatzen hasi zirenetik hamargarren urteurrena ospatzeko ezusteko betetako afari berezia.



Herriko hainbat gaztek parte hartu zuen Sorgin Jaien aurkezpenean. Txupina Sorgin Dantzako kideek botako dutela eta aurtengo berrikuntzak ezagutarazi zituzten.

Jon ALTUNA

Sorgin jaiari hasiera emango dien txupina, Sorgin Dantzako kideek jaurtiko dute aurten ekainaren 28an, San Pedro bezperan, arratsaldeko 18:00etan. Sorgin jaien antolatzaileek ostiraleko aurkezpenean aitortu zuten ez dela erabakia hartzea erraza izaten, "herrian eragile ugari dira lanean jo eta su dabilzanak eta sutzia piztu, bota eta herriatik herriaren alde egindako lanaren onarpena merezi dutenak", baina aurten Sorgin Dantzako kideen jarrera eskertu nahi izan dute, "duela 10 urte txosnen debekua osten "Txosnak Bai" zioen pankarta eskuetan hartu eta bestelako jai eredu batzuen alde egindako apustuarengatik". Bestalde, Sorgin Jaiak antolatzen ari direnek kontuan izan dute Sorgin Dantzak 25 urte bete dituela "eta guk ere gure pasteltxo eskaini nahi izan diegu".

## Egitarau zabala

Egitarau berezi eta zabala antolatu dute aurten ere Sorgin Jaietarako, "goizean goizetik gaueko ordu txikiarainoko egitarau parte hartzailea, asanbladatan erabakia eta herriko eragileen parte hartze aktiboarekin" eta ostiraleko aurkezpena izango

diren berrikuntzak jakinarazteko baliatu zuten.

Lasarte-Orian antzerkiak eta dantzak duen indarra islatu nahi izan dute egitarauan: lehen egunean txupina jaurti ondoren kale antzerkia eta errauskailuaren aurkako flashmoba antolatu dituzte, ekainaren 30ean eguerdiko 12:30etan bertsoa eta antzerkia oinarri dituen "Hiru Bi Zast Egizu Jolas" haurrentzako lana eta arratsaldeko 17:00etan frontoian "Kutxidazu Bidea Isabel" lana eskainiko dute herriko gazteek.

## Txapelketa berriak

Bi lehiaketa berri ere iragarri zituzten ostiral arratsaldeko aurkezpenean, "tximino trebeziak erakusteko" herriko lehen eskalada txapelketa ostegunean arratsaldeko 17:00an frontoi berriaren atzealdeko rokodromoan, eta Sorgin Jaietako bakailao txapelketa larunbatean goizeko 11etan hasita.

Otordu ugari izango da Sorgin Jaietan, San Pedro eguneko koadrilen bazkaria eta arratsaldeko Sardina Jana asteazkenean, Umeen bazkaria ostegunean, afaria Xirimiri ostiralean, gazte bazkaria eta iluntzeko saiheski jana larunbatean. Otorduei dagokionez, bi berrikuntza aipatu zituzten antolatzaileek, batetik, "aurten krisia dela eta

jakin badakigu guztion poltsikoak ez direla momenturik hoberenean" eta beraz San Pedro eguneko Koadrilen bazkaria era berezian egingo da: 5 euroren truke edaria antolatzaileek jarriko dute baina jateko koadrilek eraman beharko dute: helburua traben gainetik guztiek elkarrekin jan eta mahai inguru atsegina izango baitira, antolatzaileek adierazi dutenez. Bestalde, egitarauko berrikuntza nagusietako bat 250 lagunentzat Xirimiri prestatuko duten afaria izango da, Udalak txosnak debekatu eta bestelako jai ereduari heldu zientetik 10 urte bete direla ospatzeko.

## Kontzertu ugari

Berrikuntza da San Pedro egunean goizeko 11etatik aurrera egingo den artisau azoka ere, KamioiRock deitu dutena eta herrian zehar egingo diren kale kontzertuak bezala.

Kontzertuei dagokionez, Sorgin Jaiak ahalegin berezia egin du aurten ere kontzertu on eta erakargarriak antolatzen. Asko izango dira, eta

herriko taldeen parte hartzea nabarmendu zuten aurkezpenean Esne Beltzak ostegunean 30ean eskainiko duen kontzertuarekin batera. Hau ordu bete aurreratu dute eta 22:30etan hasiko da 00:30etan Udalak ekarri duen Reincidentes taldearena hasiko baita.

Asteartean Arramazka, Makulu Ken eta Trikihots-en joko dute Txosnetan, asteazkenean Laket taldeak, ostegunean esan bezala Esne Beltzak, ostiralean kamioi Rock-a arratsaldeko 18:00etan hasita Auhén, Plan B eta La Pop'la taldeekin, gaurdian, Fan&go eta DJak izango dira, eta azkenik larunbatean Blaka, The Sugar Balls eta 3Gabe2 taldeak.

## Egun osoko haurren festa

Haurrentzat aurten ere egun osoko festa antolatu dute osteguna 30ean, antzerki, joko, bazkari, buru handi, danborrada eta urtero arrakasta handia izaten duen Pirritx, Porrotx eta Mari Motots-en emanaldiarekin.

Eta egitarauan ohiko beste hainbat ekitaldi ere ez dira falta, sorgin dantza, herrien

arteko olinpiada, bertso poteoa, santza saioa, batukada, zanpantzarrak, sagardo dastaketa, erromeria, Zabale-tara kronoeskalada, goiti-behera lehiaketa eta baltsa jaitziera, besteak beste.

## Oharrak

Ostiralean arratsaldeko 19:00etan hainbat gazteren aurrean Ane Labaka, Oihan Agirretxe, Jone Iregi eta loritz Iparragirrek egin zuten aurkezpenean bestalde, aurten herriko frontoi berria zabalik izango dela jakinarazi zuten eta zaintzeko eskatu. "Herriko gauza guztiak bezala hau zaintzea guztion ardura da eta mesedez eskatzen dugu zaindu eta errespetatzeko". Konkretuki, lurra eta paretak ez margotzeko, eta frontoia zakarrez ez betetzeko eskatu zuten.

Beste zenbait eskaera ere luzatu zituzten, batetik, asteartean pijamarekin kalera ateratzeko, bestalde, jai egun guztietan bluxa erabiltzeko eta umeen eguneko ur jolasetan ibiliko diren haurrek aldatzeko arropa eraman dezatela.

Azkenik, alde zurretik barkamenak eskatu zizkieten lanera joan behar duten herri-tarrei edota haurrak dituztenei festa giroa dela eta jasan beharko dituzten eragozpenengatik. •

*Sorgin Dantzak botako du txupina, duela 10 urte "Txosnak Bai" pankarta hartu eta beste jai eredu baten alde egin zuelako*